

B

Automobil tailerrari erreklamatzea

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK**Izen-abizenak:** Miren Jone Barrutia Lopez de Okariz**Helbidea:** Loramendi kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Arrasate **PK:** 20500**Nortasun agiria:** 56.887.673J **Telefonoa:** 943763262**Noren ordezkari:****ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK****Enpresaren izena:** Ibili Auto Konponketak**Helbidea:** Elkano kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Arrasate **PK:** 20500**IFZ/NA zk.:** 56.887.673D **Telefonoa:** 943763262**Jarduera:** Auto konponketa**ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA**

Autoa tailerrera eraman nuen frenoetako arazoa konpontzeko. 150 €-ko aurrekontua egin zidaten eta nik onartu egin nuen. Konpondu ondoren autoa jaso nuen aurrez ordainketa eginda.

Astebetera frenoetako arazoak izan zituen autoak eta berriro tailerrera eraman nuen. Jasotzera joan nintzenean beste 150 € ordaindu behar izan nuen. Gauza bera bi aldiz ordaintzen ari nintzela esan nien, baina haiek esan zidaten, ordaintzen ez banuen, autoa ezin nuela atera. Gero, erreklamazio orriak eskatu nituen eta esan zidaten ez zeukatela horrelakorik. Tailerrekoen jarrera ikusita ordaindu eta alde egitea erabaki nuen.

Beraz, zera eskatzen dizuet, bitartekaritza egiteko bigarren konponketaren fakturaren zenbatekoa itzul diezadaten eta erreklamazio orriak jar ditzaten "Ibili auto konponketak" tailerrean.

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 12an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK (FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,...)

Lehenengo faktura

Bigarren faktura

Izp.



1